

Salomonen itzala ote da Mendozaren atzeko hori?



Xabier Letona

@xletona

OTSAILAREN 13-14AN EAJk *Batasuna eta indarra* agiri politikoa onartuko du Iruñeko Baluartean egindako batzarrean. Testuaren oinarrian ez da ezagutzen ez denik, baina agirian esaten denak aurrera eginez gero, egoera berrietara eraman gaitzake: bigarren trantsizio batera, jeltzaleek azpimarratu duten moduan. Testu jeltzaletan oso ohikoa den gisan, potentzialitatea bada; errealismo jeltzalearekin uztartu ondoren zer aterako den, hori beste gauza bat da. Errealismo jeltzalean funtsezkoa da Moncloan nork agintzen duen; are funtsezkoago da Ajuria Enean nor den, baina ideia horrek ez die arazo handirik sortzen, azken hamarkadatan han batez ere beraiek agindu dute eta. Abenduaren 20ko hauteskunde emaitzekin hori Gasteizen ere aldatuko den ikusgai da; samurra ez dirudi, baina ezinezkoa ere ez. Pistak Espainiako Gobernuaren osaketak emango ditu.

Euskal Herriari begira, dokumentuaren oinarria edozein abertzalaren haginak zorrozteko modukoa da: Ibarretxe Plana zena eta Loiolan 2007an EAJk, PSE-EEk eta Batasunak lortutako aurreakordioa, orain hobeto dakigunez, Batasunak onartu zuena, baina ETAk eta ezker abertzaleko beste sektore batzuek ez. 2013aren amaieran EH Bilduk berak bi oinarri horiek eraman zituen Eusko Legebiltzarreko autogobernuaren lan-taldera. Biek tresna berberak eta ezin topo egin? Halakoa da politikaren labirintoa, funtsean gehienetan garrantzitsuena ez delako *zer* izaten *noiz*, *nola*, *norekin* eta *zertarako* baizik. Eta hor nekez ikusten da adostasunik oraindik.

Beste bektoreren bat behar da eragiketa horrek bestelako emaitzarik izan dezan. Ahal Dugu izan daitekeen ikus-

gai da, baina denak adierazten du Iglesiasen alderdia geratzeko etorri dela euskal gizartera. Eta eragiteko. Jeltzaleen agiria ondo kokatzeko, halaber, garrantzitsua da ulertzea legealdi baten amaieran gaudela eta aurki –teorikoki udazkenean– Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak izango direla. Ez da komeni ahaztea, 2011ko EAEko hauteskundeetan kontsulta bat agindu zutela 2015erako beren hauteskunde programan. Edo merezi du kontuan izatea Eusko Legebiltzarrean boto soberanista oso nagusi izanda iritsi dela amaiera penagarri batera autogobernuaren lan batzordea.

Jeltzaleen agiria ondo kokatzeko, halaber, garrantzitsua da ulertzea legealdi baten amaieran gaudela eta aurki –teorikoki udazkenean– Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak izango direla

Batasuna eta indarra, Iruñean onartu zen (1977) eta onartuko den (2016) testu baten titulua da, baina izan zitekeen baita ere hauteskunde kanpaina luze bati hasiera emateko lelo eraginkor bat.

MADRIL ALDEAN ERE hauteskundee-tarako lelo bila ari dira jadanik alderdi nagusienak, dagoen gobernu-korapiloa-

rekin aukera hori ere ezin baita baztertu. Boterean, hala ere, koalizio gobernu handiaren aldeko bultzadan jarraitzen dute; Europar Batasuna, Ixek, *El Mundo*, *El País* eta abarrek garbi dute. Baina Don Inorrez zena matxinatu egin zaie PSOEn idazkaritza nagusitik eta orain erditik kendu behar, pentsatu baino lehenago.

Horretan ari dira, lotsa gutxirekin gainera, Pedro Sanchezek militantei kontsulta egiteko egindako iragarpenari *El País*eko editorialak (urtarrilak 31) emandako erantzunak erakusten duen legez. *PSOE ez da CUP* zioen editorialaren tituluak eta hala testuaren zati batek: “Buruzagiak arazoak ditue-nean oinarriei dei egiteko duen joera hori erdipurdiko politikarien eta erakunde populisten heldulekua da”. *El Diarri*koek, aldiz, laster erreskatatu zuten 2013an Alemaniako sozialdemokratek Angela Merkelekin lortutako akordioa oinarrietara eraman zutenekoa, hura ez baitzen politikari kaskarren kontua, “populismoen antidoto bihurtu behar-ko litzatekeen sakontze demokratikoa” baizik. Batek daki nola deituko zaion jokamolde horri kasino-kazetaritzaren estilo-liburuetan.

NAFARROAN ERE aste garrantzitsua izango da. Foru Gobernuak hezkuntza-ko Lan Eskaintza Publikoarekin eta irakasleen zerrenda bakarrarekin zer egin erabaki beharko du. Edozein irtenbidek ekarriko dio egurra, beraz, duinena eta politikoki bere printzipioekin zintzoena iragarritako asmoei eta zerrenda bakarraren ideari eustea litzateke. Ikusgai hau ere, baina ez dakit Mendozaren atzean ikusten den hori ez ote den Salomonen itzala. ■